

DEFINIZIOA

Erosketa egitean sor daitezkeen arazoak nola konpondu erraz eta arin, eskura ditugun kontsumo INFORMAZIOA eta zerbitzuak..

EGOERA PRAKTIKOAK



JON hiriko apartamentu txiki batean bizi da. Arratsalde batean, etxean zegoela, saltzaile bat etorri zaio entziklopedia bat saltzera. Ordainketa baldintza onak eskaini dizkionez, Jonek onartu egin du erostea. Hurrengo egunean, bizitzaren kasualitateak, gurasoek udako etxean zeukaten entziklopedia eskaini diote.

Jonek arazo bat du: Bi entziklopedia dauzka eta bakararra behar du.

Zer egin arazoa konpontzeko:

- “Bere arazoa” dela onartu.
- Berehala konpontzea erabaki du, baina bakarrik ezin egingo duela konturatu da.
- KONTSUMITZAILEARENTZAKO UDAL INFORMAZIO BULEGOra joan da, eta zer eskubide eta betebeharrak dituen galdetu du.
- Entziklopedia etxean jasoko duenetik eskaria itzultzeko eta, inolako azalpenik eman gabe, kontratua ezeztatzeko zazpi egun dituela jakin du.
- Kontratua ezeztatu ondoren, enpresa entziklopediaren bila joan da, eta arazoa, konponduta.

GOGOAN
IZAN

- ▶ Arazoa zeurea dela ONARTZEA eta arazoari aurre egitea garrantzitsua dela konpondu ahal izateko.
- ▶ Arazoari lehen bai lehen EGIN BEHAR ZAIO AURRE (Jon zain geratu izan balitz, zazpi egunak igaroko lirateke, eta ez luke entziklopedia itzultzeko aukerarik izango).
- ▶ Oso garrantzitsua da zure inguruak eskaintzen dizkizun zerbitzuak zein diren jakitea, horrela zure eskubide eta betebeharren BERRI IZANGO DUZU-eta: Kontsumitzailearentzako Udal Informazioa Bulegoa, web orri espezializatuak, doako kontsulta telefonoak...



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Fondoa

inguralde

BARAKALDOKO UDAL GORENA Euzko Lehen
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO